

I. EUSKAL KULTURA SUSTENGATZEN DUEN HERRIARTEKO SINDIKATA

⇒ Euskara eta euskal kulturaren sostengurako xede bakarreko sindikata (SIVU)

Sindikataren antolaketa eta administrazioa

- ✓ **Estatutua:** Euskararen eta euskal kulturaren sostenguaren ardura duen Xede Bakarreko Herrien arteko Sindikata (XBHS)
- ✓ **Kideak:** 145 herri, 185 ordezkari
- ✓ **Sindikateko Batzordea,** kide diren herrietako delegatuek osatzen dute manera honetan:
 - 2000 biztanlez peko herriak → delegatu 1 eta ordezko 1
 - 2000-5000 biztanleko herriak → 2 delegatu
 - 5000-10 000 bizkanleko herriak → 3 delegatu
 - 20 000-40 000 biztanleko herriak → 5 delegatu
 - 40 000 biztanle baino gehiagoko herriak → 6 delegatu

↪ Sindikataren atal erabakitzailea, bereziki aurrekontua eta administrazio kontuak bozkatzen dituen, gutienez sei hilabetetarik biltzen da.
- ✓ **Bulegoaren** osaketa: lehendakaria (Jean-Claude Iriart), bi lehendakari orde (Alain Massonde eta Christine Urkia), eta beste 8 kide (Christian Noblia, Katia Miranda, Pampi Dirassar, Marcel Iturburu, Yvette Debarbieu, Marie-Christine Larramendy, Lydie Arrossa, Ainize Madariaga)
- ↪ Biltzar Nagusian aurkezteko erabaki proposamenak prestatzen ditu eta gai zerrendak finkatzen ditu
- ✓ **Herrien diru ekarpena,** Sindikataren gastuen estaltzeko, bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera da (DGFaren kalkularentzat kontutan hartutako populakuntza).

Herri kideen kotizazioaren bilakaera

✓ 1998 : 2,55 F = 0,39 €/bztl	112 122 €
✓ 1999 à 2003 : 3,08 F = 0,47 €/bztl (+ %20,5)	135 122 €
✓ 2004 : 0,55 €/bztl (+%17)	158 122 €
✓ 2005 1 €/bztl (+ %82)	287 493 €
✓ 2006 : 1 €/bztl	287 493 €
✓ 2007 : 1,10 €/bztl (+%10)	315 000 €
✓ 2008 : 1,10 €/bztl	315 000 €
✓ 2009 : 1,20 €/bztl (+ %9)	344 000 €
✓ 2010 : 1,20 €/bztl	352 000 €
✓ 2011 : 1,20 €/bztl	375 000 €
✓ 2012 : 1,30 €/bztl (+ %8)	413 270 €
✓ 2013 : 1,30 €/bztl	420 000 €
✓ 2014 : 1,30 €/bztl	425 000 €
✓ 2015 : 1,40 €/bztl (+%8)	467 700 €

➔ Goratze progresiboaren zergatiak :

- ✓ Biztanle kopuruaren bilakaera naturala
- ✓ Euskararen eta euskal kulturaren aldeko politiken indartzea (adib. 2005ean, EEP-ren sorkuntza)
- ✓ Azken 10 urteetan 2/3 urtero 0,10 €-ko goratze erregularra

Lan eremuak

Sindikata 1990an sortua izan zen, nahi zuten herriek urte berean sortutako EKE-ren finantzaketan parte hartu ahal izateko. Urteak iragan arau, euskararen eta euskal kulturaren inguruko ekintza publikoa indartu da, eta Sindikataren lan eremua zabaldu.

- **EKE:** 1990an sortu zenetik : Sindikatako herri kideek aulkia badute EKE-ko Biltzar Nagusian, Lehendakariak eta Sindikatako ordezkari batek aulkia badute Administrazio Kontseiluan
- **EITB** 1990eko hamarkadaz geroztik : hastapenean ETB-ren hedagailuen mantentzearen diruztatzailea, 2011-ko numerikora iragaitearen ondotik Iparralderako hedapenaren obralaria
- **EEP** 2004eko abenduan sortuz geroztik : Lehendakariak EEP-ko Biltzar Nagusian eta Administrazio Kontseiluan aulkia badu. EEP-ko bi lehendakariordeetarik bat da.
- **Bilketa** 2014az geroztik : Lehendakariak proiektuaren Gidaritza batzordeetan parte hartzen du.

	Kopurua	eragilearen instituzio finantzamen duaren %	% EKSHS-ko (SISCB) herrien kotizazioaren %
EKE	144 400 €	% 20	% 34
EEP	263 100 €	% 10	% 60
Bilketa	38 400 €	% 35	% 9

Sindikateko Lehendakaria **Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko** Administrazio Kontseilura eta Biltzar Nagusira gomitatua da.

II. EKAHAS-EN LAN EREMUAK

1. EKE- euskal kulturari sostengua
2. Bilketa - euskal funtsen balorizapena
3. ETB - euskarazko telebista katearen hedapena
4. EEP- euskararen aldeko politika publikoa

1. Euskal Kultur Erakundeak

- Euskara eta euskal kulturaren eremuetan lanean ari ziren elkarteek bultzatuta, podere publikoek sortua **1990an**
- **Misioa:** euskal kulturaren sustapena, garapen iraunkorra eta hedapena. EKEren jarduera eremua Iparraldea da (le pays «Pays Basque »), baina euskal kulturaren hedapena susta dezake eskualdean, eremu nazionalan eta nazioartean.

Erakunde publikoak	Kultur eragileak
<ul style="list-style-type: none"> • Estatua • Akitaniako Eskualdeko Kontseilua • Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu Nagusia • EKAHAS-ko herri kideak (146) • Euskadiko Autonomia Erkidegoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Eremu artistikoan lan egiten duten elkarte eta pertsona moralak (157) • Pertsonalitate kalifikatuak

Kultur proiektua

- **Helburua:** euskal kulturaren sustapena, garapen iraunkorra eta hedapena
- **Lan eremuak:** literatura eta argitalpena, antzerkia eta bertsolaritza, ikus-entzunezko ekoizpena eta hedapen numerikoa, dantza, kantua eta musika, arte plastikoak, ondarea eta inguramena, turismoa eta gastronomia, pestak, aisialdiak, jokoak eta herri kirolak
- **4 lan ardatzen inguruan egituratutako funtzio bikoitza :** kontseilatu, akuilatu, informatu, lagundu



EKE-ren izariak 2014an

- Talde teknikoa 9 pertsonakoa da
- 2014ko aurrekontua

GASTUAK		SARTZEAK	
Proiektu kulturala	681 037 €	Diru laguntzak	588 000 €
1/ Politika publikoen definitzeko aholk.	58 374 €	Estatua	196 000 €
2/ Proiektu berritzaileak bultzatu	65 739 €	Departamendua	196 000 €
3/ Eragile kulturalak lagundu	490 316 €	Eskualdea	196 000 €
4/ Informatu, komunikatu	66 609 €		
		Kotizazioak	148 700 €
Futzionamendu gastuak	232 463 €	EKAHAS	144 200 €
		Elkartek	4 300 €
		Gainerateko sartzeak	213 800 €
		Laguntza prib.	23 000 €
Amortizamenduak	37 000 €	Proiektu partaidetzak	184 800 €
		Uniformentazioa	6 000 €
Orotara	950 500 €	Orotara	950 500 €

➔ EKAHASen laguntzaren emendatze ttipi batez kanpo 2014an (+ %3), EKE-ren diruztate publikoak geldirik egon dira 2007az geroztik (Euskal Herriko lurralde kontratua).

2. Euskal Telebista - ETB

2011an telebistaren hedapena numerikora pasatu denetik, ETBren hedapena iparraldean kudeatzen eta finantzatzen du Sindikatak :

- Iparraldeko familien %90ak telebista hartzen du CSAk baimendu lurreko hedatzaileen bitartez → ETB 1,2,3 et EITB hedatuak dira
 - Satelitearen bitartez hedatzen da ETB, gainerateko familien %10arentzat → jatorrizko proiektuan ETB 1 eta 3ren hedapena aurreikusten zen
- ↪ Sindikatak bi kontratu izenpetuak ditu telebista hedatzaileekin : inbeztizamendua eta mantenimendua kontutan hartzen dituztenak
- TDFeko kontratua lurreko hedapenarentzat 2016eko ekaina arte → ETBk ditu fakturak pagatzen subrogazio bitartez
 - Fransatekilako kontratua satelite bitartezko hedapenarentzat 2017ko martxoa arte → Sindikatak Herri Elkargo eta Kontseilu Nagusiari 135 000€ko diruztapen bat biltzen du eta araberan ditu fakturak Frantsati pagatzen

3. Euskal funtsak - Bilketa

Egoera : euskal funtsak egitura ezberdinetan barreatuak dira

↳ ez da tratamendu amankomunik, ez eta ere irakurgarritasunik ikasle, ikerlari eta publiko zabalarentzat

2007-2013ko lurralde kontratuaren baitan sortua, eta **Baionako hiriak kudeatua**, Bilketa-Euskal funtsen proiektua **lurralde mailako dokumentazio zerbitzu bat da**. Iparralde osoa estaltzen du eta **atari numeriko bat** dela medio aktibatzen da.

Helburua : tokiko eta kanpoko liburutegi/mediateketako eta artxibategietako **euskal funtsen (euskarazkoak eta Euskal Herriari buruzkoak) seinalatzea, eta hedatzea**

- metakatalogo baten bitartez
- emeki emeki liburutegi numeriko bat osatuz
- funtsak balorizatuz, erakusketa birtualak direla medio

Profesionalen sare bati uztartua : (liburutegi sare, artxibategi eta elkarteetakoak) erreferentzialak sortzen dituen, dokumentazio metodoak finkatzen dituen, formakuntza eta aholkularitza funtzio bat betetzen duena etb.

➔ **Bilketa atari numerikoa 2015eko apirila bukaeran zabalduko da**

Proiektuaren izaria

Proiektua animatzen duen lan taldea Baionako mediatekan :

1,5 postu proiektuaren animazioarentzat, eta hiriko zerbitzuen mobilizatzeko erregularra beharren arabera (komunikazioa, informatika, merkatu publikoak etb.)

2014eko aurrekontu iragarpena

GASTUAK		SARTZEAK	
Kargu orokorrak	87 000 €	EKAHAS	38 400 €
Giza baliabideak	74 000 €		
Besteako karguak	6 000 €	DRAC	33 000 €
Ataria	7 000 €		
Dokumentazio zerbitzua	7 850 €	DEPARTAMENDUA	12 300 €
Katalogoa	1 350 €		
Numerizazioa	5 000 €	BDP	2 000 €
Atariaren itzulpena	1 500 €		
Mediateken sarea	2 500 €	BAIONAKO HIRIA	15 000 €
Formakuntza 1	2 000 €		
Profesionalen egun 1	500 €	EEP	4 200 €
Balorizatzea eta arartekolaritza	13 600 €		
Erakusketa birtualak	7 000 €	EKE	1 500 €
Pastolarez arartekolaritza - publiko zabala	1 000 €		
Pastolarez arartekolaritza - irakasleak	600 €	BnF	4 550 €
Kom. Plana	5 000 €		
OROTARA	110 950 €	OROTARA	110 950 €

4. Euskararen Erakunde Publikoa


- **Interes Publikoko Elkargoa** (GIP), 2004eko azaroan sortua eta botere publiko maila guziak biltzen dituena euskararen salbatzeko eta biziberritzeko
- Egin beharra : **euskararen aldeko politika publiko baten definitzea eta obratzea**, Iparraldeko eremuan (« pays Pays Basque »)
- Estatutuen araberako eskubideak eta **Biltzar Nagusiko** bozak, molde horretan antolatua dira:
 - ✓ Estatuak : %33,3, 3 ordezkari
 - ✓ Eskualdeak : %33,3, 3 ordezkari
 - ✓ Departamentuak : %33,3, 3 ordezkari
 - ✓ EKAHASek : %9, ordezkari 1
 - ✓ Hautetsien konseiluak : %0,1, ordezkari 1
 - ↪ Biltzar Nagusiak hizkuntza politikari buruzko erabakiak hartzen ditu, behar diren baliabideak biltzen ditu, finkatu helburuak gauzatzen direla segurtatzen du
- Kide bakoitzeko ordezkariak biltzen da **Administrazio Kontseiluan**
- ↪ Biltzar Nagusiari aurkeztuko zaizkion erabaki proposamenak definitzen ditu, Biltza Nagusia noiz bildu erabakitzen du, eta gai ordenak finkatzen ditu
- **Aholku batzordea** (130 bat kide) euskararen alde diharduten eragile publiko eta pribatuak biltzen ditu → proposamenak, abisuak etb.

Hizkuntza politikaren kuadroa

Euskararen egoera soziolinguistikoa EEP sortzean : hiztunen %25a euskalduna da, baina gainbeherak segitzen du : 1/3ek 65 urtetik gora du ; familia transmisioa hautsia da ; lurraldeko populakuntza emendatzen da kanpotik jin jendearen ondorioz.

2006ean EEPk onartzen duen **Hizkuntza Politika Proiektua** :

- Helburu nagusi bat eta estragia bat : **hiztun osoen ekoizpen dinamika berbultzatu, gazte belaunladiak lehenetsiz**
- **Hizkuntzaren transmisioa eta erabilpenarengan** eragiten duten 12 jarduera eremu finkatzen ditu
- Politikaren obratzeko printzipio nagusiak definitzen ditu : **desmartxa bultzatzaile bat, hiztun eta eragileen hautu librearen errespetuan ; eskumenen banaketaren, legedi eta arautegiaren errespetuan**



- ➔ Hizkuntza politika eraikitzen da, maila ezberdinetako erakunde eskudunekin partaidetzak lotu arau. Helburua : **sektore orotan eta lurralde osoan euskarazko eskaintza garatu, biztanle guzietan euskararen hautua egiteko parada ukan dezaten.**

Hizkuntza politikako partaidetza nagusiak

- **Lehen haurtzaroaren euskarazko eskaintzaren egituraketa**
 - 2008an sortu den Leha dispositiboaren baitan biltzen dira Akitania hegoaldeko MSA, Kontseilu Nagusia, Euskal Herri eta Seignanxeko Cafa, EEP
 - Lurraldeko haurtzaindegien 1/3a engaiatu da euskarazko harrera edo harrera elebidun baten eskaintzera
- **Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena eta egituraketa** : Kontseilu Nagusia eta Hezkunde Nazioanalaren arteko partaidetza, EEP obratzaile izendatzen duena
 - **Sare epublikoan, 42 sail elebidun ireki dira 2004ean EEP sortu denetik**
 - **Lurraldeko ikastetxeen %60ean euskarazko irakaskuntza eskaintza bat bada**
 - Sare pulikoko kolegioetan **lurralde estaldura segurtatua da**
 - 2013-2014ean, **euskarazko irakaskuntza segitzen dute** : ama eskolako ikasleen %43,6ak, lehen mailako ikasleen %36,6ak, kolegioko ikasleen %15,6ak

Hizkuntza politikako partaidetza nagusiak

- **Bizitza eremuetan, hurbileko hizkuntza politika baten obratzea**
 - ✓ Partaidetzak lotuak, + 10 000 biztanleko hiri eta herri elkargo kasik guziekin
 - ✓ 11 teknikari-garatazaile biltzen dituen sare bat
- **Euskararen erabilpenaren garapena zerbitzu publiko eta parapublikoetan**
 - ✓ Herri, komertzio eta laborantza ganbara, hospitale, Bil ta Garbi ...rekilako partaidetzak
 - ✓ Urtero 160 agentek inguru segitzen dute euskarazko formakuntza profesionala
- **Eusko Jaurlaritzarekin mugazgaindiko lankidetzak**
 - ✓ Informazio eta jakitate trukaketa
 - ✓ Urtero diru fondo komun bat osatzen dute (EEPk 1 200 000 € + EJK : 400 000 €) euskalgintzako eragile pribatuen laguntzeko
- **Euskalgintzako elkarleen laguntzea**
 - ✓ EEP/EJren arteko diru fondoaren bitartez : 1 600 000 €
 - ✓ 2013an : 64 eragile edota 83 proiektu lagundu dira, hizkuntza politikako eremu ezberdinetan dihardutenak

EEPren izaria 2014ean

- 12 jendek osatzen dute lan talde teknikoa
- 2014eko aurrekontua

GASTUAK		SARTZEAK	
Hizkuntza politika proiektua	2 609 800 €	Kideen emaitzak	2 725 950 €
Partaidetza publikoak	459 800 €	Estatua	740 000 €
Euskalgintza eragile pribatuen laguntza	1 600 000 €	Eskualdea	860 000 €
Ikasmaterialaren ekoizpena	350 000 €	Departamendua	860 000 €
Ikastetxeen proiektu deialdia	60 000 €	EKAHAS	263 100 €
Hizkuntza kalitatea	140 000 €	Euskal Herriko hautetsien kontseilua	2 850 €
EEPren funtzionamendua	773 867 €	Eusko Jaurlaritzaren emaitza	400 000 €
Lan taldea	656 000 €		
Egitura gastuak	117 867 €	Gainerateko sartzekak	36 000 €
		Lanerako laguntza	16 000 €
		Herri elk. + hirien oradainketa PACK 1et 2	20 000 €
		Probisioen errekuperatzea	221 717 €
Total	3 383 667 €	Total	3 383 667 €

- 2010az geroztik, Estatuak, Departamenduak eta Eskualdeak ez dute gehiago maila berean diruztatzen EEP → Estatuak ez du besteen heinera emendatu bere ekarpena
- Bigarren urtea da EEPk bere probisioak erabiltzen dituela aurrekontuaren orekatzeko

Hizkuntza politika 2014ean

- Euskararen transmisioa eta erabilpena sustatzeko xedez, dauden sareetan euskarazko eskaintza egituratzen eta garatzen dihardu EEPk
 - Eskolen %60a, haurtzaindegien 1/3, 54 etxehautzain, herrietako zerbitzuak etb.
- Partaidetzan eraiki hizkuntza politika bat da, **tokiko erakunde publikoen adosmena lortzen duena**
 - Partaidetzak lotuak dira 10 000tik gorako hiri eta herri ekargo/hirigune kasik guzietan
- **Eskaintza badelarik, herritarrek euskararen hautua egiten dute :**
 - Lehen mailako haurren %36,6ak euskarazko irakaskuntza segitzen du, eta kopuru horrek %50a gainditzen du eskaintza behar bezala garatua delarik
- **Gizartearen eskaerari erantzuten dion hizkuntza politika**
 - Iparraldeko biztanleriaren %94ak lurraldearen etorkizuna elebidun ikusten du
- **Hizkuntzaren berreskuratze hastapen bat gazte belaunaldien artean**
 - 2011ko inkesta soziolinguistikoa : (25-34 urtekoak % 14 ; 16-24 urtekoak : % 18)
 - Tendentzia horrek aitzina segitu beharko luke, 2004az geroztik euskaraz eskolatu haurren emendaketa ikusirik (+% 56)
- ➔ **Elementu hauek EEPren estrategia baieztatzen dute, eta frogatzen dute euskararen egoerak onera egin dezakeela**